

Kaixo!

Txikitan ume talde bat jolasean ikusi eta haiekin jolastu nahi bagenuen, "e, neu be banabil!" esaten genien.

Bada, Zabalgana institutuko **Mendibea guraso elkarte**a, **Zabalgana Batuz** auzokideen elkarte, eta **ZET** euskara taldea, hiru elkarte horiek batera, jolas bat proposatu nahi dizuegu. Gustuko baduzue, ibili zuek ere!

Zabalgana auzoa zuokin gazteekin jaio eta hazten ari da. Gure ustez, heldu da unea zuen ekarpenekin auzoa aberasteko, nabaritu dadila zuena ere badela, zuentzat bizitoki atsegina bihur dadila.

Horretarako, hiru fase dituen proiektua proposatzen dizuegu:

LEHENENGO FASEA: institutuko patioan auzoko mapa jarriko dugu, zuek gometsekin adierazteko bi gauza hauek:

- non ibiltzen zarete gustura,
- zer leku ez duzuen gustuko.

Horrekin batera, hainbat lekutako argazkiak jarriko ditugu ikusgai, munduan zehar dauden toki interesgarri batzuen berri ematea helburu.

Norentzat: DBH1, DBH2, DBH3, DBH4 eta Batxilergoko ikasleentzat.

BIGARREN FASEA: auzoan zehar Jane paseoak egingo ditugu. Jane paseoak, taldean, oinez eta ikuspegi kritiko eta eraikitzailearekin egiten diren ibilbideak dira. Hor komentatuko ditugu leku bakoitzaren alde onak eta txarrak, eta hobetzeko ikusten ditugun aukerak.

Norentzat: DBH3, DBH4 eta Batxilergoko ikasleentzat.

HIRUGARREN FASEA: gelan bertan hezitzaile batzuek gidatuta hausnarketa saioak, Lego metodologia erabilita, galdera bi hauei erantzuna emateko:

- gure auzoan, zer eraikitzeko prest nago?
- gure auzoa euskaldunago bihurtzeko, zer egiteko prest nago?

Norentzat: DBH2, DBH3, DBH4 ikasleentzat.

Ekimena honen bultzatzaileak garen elkarteok konpromisoa hartzen dugu prozesu horretatik ateratzen diren ideiak aurrera eramaten laguntzeko.

Geu be bagabiltza!

Mendibea guraso elkarte, Zabalgana Batuz auzo elkarte, ZET euskara taldea.